Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pako Idigoras Guridi Artxubi

Oñati, Gipuzkoa (1932)



Aurkibidea

Biografia



Larraña auzoko Antonena baserrian jaio zen, bederatzi anai-arrebatatik gazteenaren aurrekoa. Aita bertakoa zen eta ama Garagartza auzoko Urrutxu baserritik etorritakoa. Ospitaleko eskolan hasi zen ikasten. Gero Santa Marinakora eta handik Unibertsitateko Maristen eskolara joan zen eta bertan bukatu zituen eskolok. Anaiarik zaharrena gerran galdu zuen. Beste anaia bat agustindar joan zen, eta arreba bat moja. 1945. urtean aitak eta koinatuak zerrategi bat ireki zuten Artxubi baserrian, eta bertan egin zuen lan 30 bat urtez Pakok. Zerrategiko lanei eta zuhaitzak botatzeari buruzko hainbat azalpen ematen ditu. Auzoan gertatutakoak, galdutako baserriak, Oñatiko uztargileak, Olabarrietako “Tierra Santa”, Oñatiko zerrategiak, Artxubiko eta Oñatiko sagardotegiak, Brinkola eta Udanako tabernak, amerikanoen lanak eta beste hainbat konturen inguruan egiten du berba Pakok. Hika dihardu pasarte batzuetan.

Zintak

ONA-123

- **Proiektua**: Ander Lizarralderen fonoteka
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Ander
- **Data**:
- **Iraupena**: 94 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Lizarralde, Ander

ONA-131

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Altuna Erle, Roberto - Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-08-13
- **Iraupena**: 62 min

- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

ONA-132

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Altuna Erle, Roberto - Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-08-13
- **Iraupena**: 77 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Larraña auzoko baserriak

- **Erref**: ONA-131/002
- **Iraupena**: 0:05:25. **Hasi**: 00:00:45. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Antonena baserrian jaio zen. Non zegoen azaltzen du. Lehengo baserriak: Joxuena, Azkoitixena, Mendiola, San Lorentzo, Danbolin... Larraña auzoa, goia eta behea. Olako errota... Bidebieta eta Larrañako beste hainbat baserri aipatzen ditu.

2. Koixkar eta menditarrak; Lizargarate

- **Erref**: ONA-131/003
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:06:10. **Bukatu**: 00:09:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Menditarrak elkartu egin ziren: Koixkar esaten zioten. Eskolari buruzko kontuak, errepublika garaian. Agustindarren etxea. Duruan eta Alkorta. Lizargarateko jaia, santurik gabeko santua.

3. Hiru tokitan eskolan: ospitalea, Santa Marina eta unibertsitatea

- **Erref**: ONA-131/005
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:10:31. **Bukatu**: 00:12:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Eskolan gerra garaian ospitalean ibili zen, Sor Paulinarekin. Santa Marinan hiru eskola zeuden; Don Manuel Zendoia maisua. Maristak etorri zirenean, hara, unibertsitatera.

4. Baserriko lanak eta erlijioaren indarra

- **Erref**: ONA-131/007
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:12:27. **Bukatu**: 00:14:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Bost ikasturte egin zituen unibertsitatean. Zerrategia jarri zuten etxean. Baserriko lanak. Arrebak etxetik joan ziren, eta anaia zaharrena eta bera geratu ziren; hura karreteroa zen. Beste anaia agustindar joan zen, 14 urterekin; hari etxeko janari onena eramaten zioten gose garaian. Arreba bat ere moja.

5. Serenoa ate joka tabernan, gauerdian

- **Erref**: ONA-131/008
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:16:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Parranda pixka bat egiten zuten, baina beti lanean, larunbatetan ere bai. Kalera afaltzera joaten zirenetan, serenoa ate joka gauerdian. Egun berezietan goizeko ordu biak arte egoten uzten zuten. Txarriduna.

6. Serenoa isilarazteko modua

- **Erref**: ONA-131/010
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:17:03. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Serenoak erosi egiten ziren. "Cuba" tabernan elkartzen ziren karreteroak; kafea eta puroa ordaindu, eta serenoa isilik. Iñaxioren idiak bakarrik joaten ziren etxera. Zeintzuk egoten ziren tabernan.

7. Oñatin hamaika zerrategi; egurraren garrantzia

- **Erref**: ONA-131/011
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:21:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Oñatin 11-12 zerrategi zeuden, eta dozena bat lagun lanean bakoitzean. Igartua, Arretxe, Olalde, Galdos, Txintxurreta... zerrategiak aipatzen ditu. Karreteroak ere asko zeuden. Egurrari eskerrak familia asko bizi izan da. Pinua.

8. Egur asko saltzen zuten eraikuntzarako

- **Erref**: ONA-131/012
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:21:34. **Bukatu**: 00:24:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Egur lanak. Enbalajea. Eraikuntza: enkofratua eta marketeria. Non saltzen zuten beraiek: Gipuzkoan, Bizkaian, Valentziara... Eraikuntzako egurra. Neurri jakinak. Egiten zuten dena saltzen zen. Negozioaren beherakadak noiz egon ziren. Orain ez da egurrik erabiltzen ia.

9. Juan Garai eta Toki-eder

- **Erref**: ONA-131/016
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:26:04. **Bukatu**: 00:29:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Toki-eder bere aitak 18 bat urte zituenean egin zuen Juan Garaik (Inazioren aitajaunak). Hiru-lau baserri erosi zituen: Larraña Etxeberri... Denak bota, eta berriak egin zituen. 1940an hil zen; gorpua nola eraman zuten gogoratzen du. Banaketa egin zuten hiru semeen artean.

10. Toki-Ederren historia

- **Erref**: ONA-131/018
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:31:10. **Bukatu**: 00:33:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
Txirringainena erosi zuen Juanitok, eta itxitura egin zuen. Juanito eta Cornelio Garai anaiak haserretu ere egin ei ziren elkarrekin, lur kontuengatik. Tunela Juan Garaik (Juanitoren aitak) egin zuen: derrigortu egin zuten lehengo bidea irekita uztera. Elizbidea zegoen San Lorentzora joateko. Ugarkaldekoak.

11. Artxubiko zerrategia

- **Erref**: ONA-131/022
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:37:50. **Bukatu**: 00:39:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Artxubiko zerrategia osabak, aitak eta koinatuak jarri zuten, 1945ean. Anaiak eta berak egin zuten lana zerrategian. Artxubiko kontuak.

12. Egurraren prozesua I

- **Erref**: ONA-131/024
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:39:40. **Bukatu**: 00:43:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Egurraren prozesua. Dena eskuz, hasieran. Polea sistema. Enbor-gurdia. Esku-zerrarekin ebakitzen zuten. Lehen motozerra Bordelen ikusi zuen; zerra elektrikoa, 1965 inguruan. Nafarrei erosi zizkieten motozerrak oñatiarrek.

13. Egurraren prozesua II

- **Erref**: ONA-131/027
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:44:58. **Bukatu**: 00:48:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Enborra luzeran ebaki, oholak egiteko; begiz egiten zuten. Izkinak nola kendu. Azala ere aprobetxatu egiten zuten: alakak. Enbalajerako. Dena saltzen zen. Plazentzia, Bergara, Eibar... Baserritarrek pinuak botata erosten zituzten etxeak.

14. Egur motak, eta zuhaitzak noiz bota

- **Erref**: ONA-131/028
- **Iraupena**: 0:04:28. **Hasi**: 00:48:20. **Bukatu**: 00:52:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Lizarra, alkazia, altza... Egurraren bizioak. Apalategiak. Tarima. Arbolak botatzeko, ilbehera. Haritza, pagoa... noiz bota behar diren. Uztarria, pagoarekin. Lihoputzuan edukitzen zituzten pago enborrak.

15. Pedro uztargilea etxez etxe

- **Erref**: ONA-131/030
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:56:08. **Bukatu**: 00:57:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Uztargilea etxez etxe joaten zen; idiei neurriak hartu, eta bertan egiten zuen uztarria. Goiz batean egiten zuen. Pedro Lizarralde.

16. Pedro uztargilea

- **Erref**: ONA-131/032
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:57:50. **Bukatu**: 01:01:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Pedro uztargilearen kontuak. Feria eguna. Lokala non zeukan. Neurrira egindako uztarriak ere izaten zituen, prest. Uztarriak nola konpontzen zituen. Idiak eta behiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com